

## 4 beka eskaintzen dira LGTB+ aktibistentzat, Giza Eskubideen Kontseiluko tresnei buruzko tailer batean parte hartzeko, sexu- eta genero-aniztasunaren arloan, Genevan

UNESCO Etxeak 4 beka eskaintzen ditu Euskal Herrian bizi diren eta sexu- eta genero-aniztasuneko kolektiboen eskubideak defendatzeko aktibistotik metodologiak sustatzen dituzten erakundeetan modu profesional edo boluntarioan parte hartzen duten LGTB+ aktibistentzat.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluko 42. bilera-saioren prestakuntza-tailer batean, oso izaera praktikokoa, parte hartuko dute Genevan, 2019ko irailaren 15etik 18ra.

Programa horrek aukera ematen du hurbilpen praktiko bat egiteko NBERen sistemaren giza eskubideen babeserako mekanismoen funtzionamendura. Alde teorikoa Giza Eskubideen Kontseiluko hainbat instantzian egindako partaidetza praktiko eta aurrez aurrekoarekin uztartzen du.

Kasu honetan, orientazio sozialagatiko eta genero-identitateagatiko indarkeria eta diskriminazioen aurka babesteko tresnei buruz sakondu nahi duten LGTB+ aktibistei zuzentzen zaie.

### Programa teorikoak puntu hauek ditu:

#### I. NAZIO BATUEN SISTEMAK GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO DITUEN MEKANISMOAK. SARRERA OROKORRA:

- o Itunetatik sortutako organoen funtzionamendua eta sozietate zibil antolatuek eragiteko dituzten aukerak.
- o Giza Eskubideen Kontseiluaren dinamika.

#### II. PROZEDURA BEREZIAK (orientazio sozialagatiko eta genero-identitateagatiko indarkeria eta diskriminazioen aurka babestearen arloko Aditu Independenteari lotuta)

- o Tipologia (*errelatore berezia, aditu independentea, IOren ordezkari berezia, lantaldeak*);
- o Printzipioak (*independentzia eta inpartzialtasuna, etab.*);
- o Agintaldi tematikoak eta geografikoak;

- Lan-metodoak (*txostenak, herrialdeak bisitatzea, banakakoen kexei erantzutea, etab.*);
- Giza eskubideen urraketak jakinarazteko prozedura (*banakakoen kexak*);
- Nola parte hartu txostenetan?;
- Mugak;
- Abantailak.

### III. GIZA ESKUBIDEEN KONTSEILUAREN WEBGUNEAREN ERABILERA, INFORMAZIOA LORTZEKO ETA LANERAKO TRESNA GISA

- Webgunea, estraneta eta intereseko beste webgune batzuk.

Hautagaiak **aukeratzeko**, ebaluazio objektiboa egingo da, **irizpide hauek kontuan hartuta**:

1. Giza eskubideen arloan prestakuntza eta/edo aurretiazko ezagutza frogagarriak izatea.
2. Eskuratutako ezagutzak bere erakundearen barruan txertatzeko aukera izatea.

**Sexu- eta genero-aniztasunaren esparruko euskal gizarte zibilaren erakunde** bateko kide izatea edo harekin harreman zuzena izatea.

3. Ingeles-maila altua: prestakuntzaren zati handi bat ingelesez izango da, eta, beraz, ezinbestekoa da hizkuntza ongi jakitea.
4. Artikulu bat idaztea UNESCO Etxearen webgunean argitaratzeko: programan parte hartuko duten pertsonak, amaierako lan gisa, iritzi-artikulu bat idatzi beharko dute (gaztelaniaz edo euskaraz), ikastaroan landutako gai bati buruz; eta, betiere, beren erakundearen lanari lotuta. Artikulua [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org) webgunean argitaratuko da. Gaia parte-hartzailearen eta UNESCO Etxearen artean aukeratuko dute.
5. Diskriminazio positiboko irizpideak: euskal erakunde publiko edo pribatuaren parte hartzen duten emakumeen eta hegoaldeko pertsonen parte-hartzea sustatuko da.
6. 2 plaza gordeko dira LGTB+ Aniztasunera Leioa I. topaketako parte-hartzaileentzat. Topaketa hori UNESCO Etxeak antolatzen zuen 2018ko abendutik 2019ko urtarrilera bitartean.

Ikastaroa egiteko beharrezkoak diren materialez gain, **bekak hauek estaliko ditu**: hegaldia, hotela eta mantenua Genevan.

**Parte-hartzaileek prestakuntza-programaren saio guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta amaierako iritzi-artikulua idaztekoa ere. Konpromisoa bete ezean, bekaren zenbatekoa itzuli beharko dute.**

**Bekak eskatzeko**, hautagaiaren **CVa** bidali behar da (gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez), baita ingelesez idatzitako motibazio-gutun bat ere.

Eskaerak [j.dominguez@unescoetxea.org](mailto:j.dominguez@unescoetxea.org) helbide elektronikora bidali behar dira 2019ko uztailaren 2a baino lehen, "Becas Ginebra Artivistas LGTB+" erreferentziarekin.

UNESCO Etxeak uztailaren 24a baino lehen jakinaraziko die aukeratutako pertsoneri.

### **Informazio gehiago:**

Jéssica Domínguez - 944 276 432 / [j.dominguez@unescoetxea.org](mailto:j.dominguez@unescoetxea.org)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

